

ITSASUR

Gure proiektua makina bat da, makina honek funtzio bakarra du; itsasoko ur gazia, ur edangarri bihurtzea. Jakingo dugun bezela lurrean dagoen uraren %2,5 baino ez da ur geza. Beraz, proiektu honekin natura edo ingurumena zaindu, arazoa murriztu eta aldi berean probetsua atera nahi dugu ; izan ere, gaur egun uraren egoeran oinarrituz ur edangarri eskasa dugu eta arazo mundial bat izan daiteke etorkizunari begira. Datuetan oinarrituz, 2025ean, 2.000 milioi pertsona inguru biziko dira erabateko ur-eskasiko herrialdeetan edo eskualdeetan, eta pertsona bakoitzeko ur-baliabideak urtean gomendatutako 500 metro kubikotik beherakoak izango dira. Hau da pertsona batek bizitza osasuntsua eta higienikoa izateko behar duen ur kantitatea.

Horregatik proiektu honen helburu bakarra lehen esan bezala, arazoari aurre egitea da eta etorkizun hobego bat edukitzea, izan ere, horrelako proiekturik ez balego etorkizunik gabe geratuko ginateke.